

Astekaria

BARREN

elgoi

MORKAIKO: Mende erdi bizkarrean



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

3 LAU HANKATAN

"Larunbat arratsaldeko zortzi t'erdia edo, eta ni kriston txixaguriakin". **Diana Perez de Albeniz**

6 ERREPORTAIA: AUTOA APARKATZEAREN KOMERIAK

Auto gehiegi eta leku gutxiegi dagoela esan ohi dugu askotan aparkaleku bila noraezean gabiltzanean.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: APARKALEKU NAHIKOA AL DAGO ELGOIBARREN?

Ainhoa Idarraga: "Aparkaleku gehiago egon beharko litzatekeela uste dut".

Javier Oñederra: "Sarritan uskerietarako erabiltzen dugu kotxea".

12 BERBETAN: Jose Antonio Urbietta

"ETORKIZUN BILA JOAN GINEN AUSTRALIARA".

14 KIROLA

GAIA: ELIZBAR UBILABA GEORGIARRA, TXAPELKETAKO FAVORITO ELKARRIZKETA: **Ana Gonzalez**

17 KULTURA

MUSIKESKOLAKO IKASLEEN ETA UDAL TXISTULARIEN KONTZERTUA

TXANDAK

FARMAZIAK:

27, larunbata: **YUDEGO**

28, igandea: **YUDEGO**

29, astelehena: **BIDASOLO**

30, asteartea: **BIDASOLO**

1, asteazkena: **BIDASOLO**

2, osteguna: **BIDASOLO**

3, ostirala: **BIDASOLO**

OKINDEGIAK:

28, igandea: **FOTERO**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua 7410 08

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32


Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea

Elgoibarko Izarra

Laguntzailea

Elgoibarko Udala

Zuzendaria

Alberto Agirreazaldeg

Hizkuntza Arduraduna

Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

Kazetaria

Ainhoa Lodoso

Maketatzailea

Maite Rementeria

Publizitatea

Nekane Etxaniz

Administrazioa

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansuategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Agur Miren Barandiaran,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, Nerea Lodoso,

German Meabebasterretxea,

Jasone Osoro, Diana Perez de

Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor

Zabaleta

Banaketa arduradunak

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

Inprimategia

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

Tirada:3.000 ale

Lege gordailua:SS-1.038/92

ISSN:1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta

iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

Txixaguria dakat

Larunbat arratsaldeko zortzi t´erdiak edo, eta ni kriston txixaguriakin. Normala, nork ez du sentitzen komunera joateko beharra zurito batzuk hartu eta gero? Arnasa fuerte hartu eta ipurdien artean bidea ukabilka egin ondoren, amestutako atean eskua jarri eta, kaka zaharra! Itxita! Ez dakit nere larritasunean mogolloia berriro zeharkatzeko kemenik izango dudan; ze, ikusi beharra dago zenbat turista izaten diren ordu horietan. Ai! Hurrengo tabernara arte eutsi behar. Baina, hau kasualitatea, hurrengoan ere berdin. Kontxo, eta nik pentsatzen nuen komuna irekita edukitzeko obligazioa zeukatela! Bestela, zertarako egiten dituzte? Erabiltzeko inor ez dagoenean zabaltzeko?


Jaietan egoera areagotu egiten da, noski. Azken Sanbartolotan elkarrizketa alai bat izan nuen tabernari batekin gaueko hamaikak edo hamabiak inguruan, taberna erdi hutsik zegoela, komuneko giltza utzi nahi ez zidalako. Bere hitzetan, ireki zuen azkenengoan (auskalo noiz izan zen hori) eztakizer puskatu zioten. Bueno, baina ez nintzen ni izan, ez?

Nipadios, ez zidala utziko. Bere bezero gisa neretzat zabaltzeko beharra adierazi nionean, berak ere txixa egiteko gogorik bazeukala eta aguantatzen zuela kontatu zidan; oh! zernolako balentria! Nork esan ote zion bere abenturak entzuteko gogorik neukanik. Maalako plastikozko berdeetara joateko eta guzti gomendatu zidan (horiek ere itxita zeudela jakingo zuen?).

Halabazan, ipurdia freskatzen jarri behar bi autoren artean. Mutilek errazago daukate horrelakoetan; beraz, guk zer, postizo bat jarri behar dugu hain larri ez ibiltzeko? Ez nau harritzen Maalatik estaziñorainoko kale horrek hain usain berezia izateak asteburuetan.

Zer egin behar dugu, komunak zabalik dituztenean ibilbidearen mapa bat kalean zehar jarri? Txixatien beharren erreibindikaziorako komando bat osatu? Edo, agian, tabernetan sartu baina ezer ez edan; bestela txixaguria etortzen zaigu. Bai, hori daiteke irtenbide onena; gainera, horrela ez gera mozkortuko eta komunak apurtzen ibiliko, ez?

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Gatza

Elgoibarko herrixan **GATZA** falta da. Denetarik dakau, bai horixe: metalak lantzeko lantegixak pilla bat, mozkorrak harrapatze-ko tabernak barra-barra, musikarako musikaeskolak, dantzalekuak,...

Baina, hala ere, Elgoibarko herrixan **GATZA** falta da. guztiok ligatzeko gogo asko? Bai horixe, bai oiñ eta bai len, beti bezela! Morboa, kotilleoa, berba eitzeko gogua? Bai horixe, nola ez ba? Oiñtxe, eta baitxa aspaldixan ere.

Baina, hala ere, Elgoibarko herrixan **GATZA** falta da. Girua dauan **GATZA** egoteko? Baietz ba, ez dot esan ezetzik behiñpeñ!

GATZA eta piperra falta zakula esatiakin bakarrik eztou ezertxo ere eitzen. Beraz, Elgoibarko herrixari **GATZA** sortzeko oinarriak bihar ditxugu jarri.

Elgoibarko **GATZA** ateneoaren eragileak

Errepresioaz nazkaturik gaude

Gazte garen heinean, arazoak biderkatzen zaizkigula dirudi. Adineko jendeak ekonomikoki etorkizuna latza baldin badu, gazteriak zer esan!!!

Etxebizitzak garesti baldin badaude, gazteontzat eskuraezinezkoak suertatzen dira; horrez gain soldaduzkara joan behar, JA JA JA!!!, Ni ez naiz joango! Ama gaisorik daukat, edo ze ostia, piperpotoa nik ez dot defenditu nahi. Intsumisioa, Euskadi Nazioa, Kakitzat, gaur kartel pegada 8etan, zozketarik ez, polizia dator, gaurkoan gorritz, ezin daitezke kartelak jarri: "No se pueden poner vuestros carteles". Errepresioa kalean. Errepresioa Donibane Lohitzunen, eta Unibertsitatean tasak igo egin dira.

Gauzak aldatuko dira, itxoitzen, beti itxoitzen. Krisia pasako da... bai, baina gaur ezin izango dut egunkaria erosi, ez daukat dirurik. Ama, gaur Bilbora noa, zertara? Manifestazio bat dago preso politikoen dispertsioaren aurka. Ez zaitez roiloe-tan sartu, kontuz jaleoekin...

Ama, errepresiorik ez; errepresiorik ez epaile jauna; bankari errepresiorik ez; errepresiorik ez Atutxa jauna; errepresiorik ez Miterrand jauna; errepresiorik ez Asuncion jauna, Euskal Herrian errepresiorik ez.

Elgoibarren errepresiorik ez. Larunbata 27, 6,30etan maniFESTAZioa.

Gazte Antolatatu, Errepresioa Apurtu

Elgoibarko JARRAI

Irudi baten oroitzapenean

Gaztelerara itzultzen didate Hasier Etxeberriaren BODRIOA, elgoiBARREN aldizkariaren 27. zenbakian argitaraturikoa, D. Luis Mazzantini Egia toreatzaile gorenari buruz, eta harritzen nau, inor, Elgoibarko inor, ez agertzea bere defentsan. Uste dut, hitz gutxitan, ezin daitekeela hainbeste zabor egin.

Aipaturiko jaunak, esaten duena egia dela agertu behar du, uste dut, ezin daitekeela horrenbeste basa bota orain dela 67 urte hildako pertsona baten gainera, bere oroitzapena zikinduaz, jaiotzen ikusi zuen herrian.

"Emakumezale porrokatua" dio, eta nik diot: nork lehengo edo geroko gizon ospetsuenetarikoa, inork baino gehiago irabazten eta toreatzen ibilitakoa, ez zeukan amodiozko abenturarik handik hona joanez, abestiko itsasgizon ospetsuaren antzera?

"Bere adoretsu ospea pikutara joan zen, egun batean, emakume baten erruz" dio. Dolu hura ez zen emakume batengatik izan, Peña y Goñi kazetariarekin izan zen "La Lidia" egunkarian azaldutako artikulua batengatik. Artikulu hartan "zapatari zure zapatetara"

esaldi antzeko bat agertzen zen. Bi aldetako aitabitxiak izendatuz, hauek, biak konbentzitu zituzten, dolua errazteko.

"Emazteari tratu txarrak" dio. Ikus dezagun, 1904 urtean, Ameriketara untziratzen da, Mejikon toreatzeko, emaztea eraman zuelarik. Guatemalan toreatzeko gonbidatzen dute, beste zezenketa batzutan parte hartu zuen, 1905. urtean Mejikon bere emaztea hil zen arte. Hara itzultzen da toreatzaile elgoibartarra, koleta moztu eta emaztearen esku batean lotzen du, bera-ekin Madrilerara itzuliz.

"Horra hor gizon handia, momentu batean koldar lotsagarri bilakatua" bukatzen du. Irakurtzen dudanarekin bukatzen dut. "Moralki, gizon eta toreatzaile moduan, ez dauka akatsik. Beti egon zen prest miseriak erremediatzeko eta malkoak xukatzeke. Eskuzabala, emankorra eta adoretsua, seguraski dohainik zezenketa onuragarri gehien toreatu duen gizona izango da".

BODRIO: Gaizki apaindutako gisatua.

Iturria: "Toros en Gipuzkoa", "Toros en Madrid", "Al hilo de las tablas", "Historia de los matadores de toros".

Francisco Frias Montoya

ANCHUSTEGUI S^a
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
 Antonio Arrillaga, 6-8
 behea
 83 Postakutxa
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92
 Fax 74 37 11

Billegia:
 Arregitorre, 10 - 14 behea
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

DEKORAZIOA

Aue

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



AZKUE

Datozen hiru asteetako erretratuak **Begoña Mugerzak** lagatakoak dira. Begoñak esan digunez erretratuak 1950. urtearen bueltan ateratakoak dira. Garai haietan C.D. Elgoibarren diru-kutxa bastante eskas omen zegoen; diru-kutxa itxuratzeko futbol partidu bat antolatzea pentsatu zuten. Futbol partidua eta ez nolana hiko gainera! Besteak bezala Errealala ala Athletic-a ekarri behar-rean, herriko potoloak eta meheak bildu eta Lerungo futbol-zelaira eraman zituzten elkarren kontra ipintze-ko. Ez dakigu dirutza handirik jasoko zuten baina ez dago dudarik barre algarak erregalatzeko beste izango

zirela. Aste honetan potoloen taldea aurkeztuko dizuegu.

Ezkerretik eskumara (tente):

Pedro Arriola, Angel Riaño, Juanito Garate, Luis Gurrutxaga, Ignacio Garcia, Jose Gabilondo eta Jose M. Gabilondo.

(Makurtuta):

Ortuzar "Pantxo", Julio Mugerza, Karmelo Gil (zutik), Lariz "Maltza" eta "Txapillo".

Oharra: Datorren astean meheen ekipoa ikusiko duzue eta hamabost egun barru arbitro-marrazainena. Ikustekoak benetan!

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Iraegui

ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52

San Antolin 74 37 06

PUB

LA TANTE

elgoibar

Fotero

OKINDEGIÀ

OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Autoa aparkatzearen komeriak

Herri guztietan bezalaxe, Elgoibarren ere trafikoak eragiten dio bati baino gehiagori hamaika buruhauste. Auto gehiegi eta leku gutxiegi dagoela esan ohi dugu askotan aparkaleku bila noraezean gabiltzanean. Gauzak nola dauden jakiteko, Udaltzaingora jo dugu eta hona hemen eman diguten azalpena.



↳ Santa Ana kalean aparkaleku ugari dago.

Elgoibartarrak oso txarrak omen gara autoa aparkatzen. Udaltzaingoa ustez, herritarren aparkamendu arazoan, leku faltak baino eragin handiagoa du jendearen jokabideak. Lehen, auto gutxiago zegoenez, erraz aurki zitekeen etxeko atearren ondoan aparkaleku aproposa. Gaur egun 4.400 ibilgailu inguru dago Elgoibarren eta Udaltzaingoa arabera, badago guztiontzako aparkalekua. Kakoa, gidarien ohiturak eta jokabideak aldatzea litzateke. Etxeko ate aurrean aparkatu beharrean, 100 metrotara edo gehienez jota 200 metrotara, beti aurki daiteke aparkalekua Udaltzaingoa esan digunez. Zamaketa

lanetarako aparkalekuak, elbarrituentzako lekuak, badoak etb., hau da, aparkaleku erretserbatuak deitzen direnak, ez dira ia inoiz errespetatzen. Arrazoi honegatik sortzen dira gero, ataskoak eta horrelakoak. Gaizki aparkatutako autoak oker aparkatzera behartzen du atzetik datorren gidaria, eta horrela benetako trafiko arazoak sortzen dira.

Autoa gaizki aparkatuta laga arren, mila argudio erabiltzen omen ditugu jokabide hori justifikatzeko. Udaltzaingoa ustetan, jokabide oker hauek besteenganaiko errespetu falta erakusten dute. "Etxetik 50 metrotara autoa aparkatzea urruti dela iruditzen zaigu eta Donos-

tian 500 metrotara aurkitzen badugu poztu egiten gara". Herrian dagoen aparkaleku urrunenetik herri erdira 200-300 metro baino askoz gehiago ez dago.

Erdiguneko kaleak, San Frantzisko, Errosario, San Bartolome eta Santa Ana kaleak, ordu erdiko aparkaleku mugatua dute. Eguerdian kale hauek itxi egiten dira eta oinezkoen trafikoa- rentzat soilik geratzen da irekita. Guztira zenbat aparkaleku dagoen jakiterik ez dagoen arren, Udaltzaingoa horretan ari da eta laster edukiko dituzte datuak eskuartean. Urte osoan zehar, eguneko 24 ordutan, 100 aparkaleku libre dago Santa Ana kalean, Andika-

"Urte osoan zehar, eguneko 24 ordutan, 100 aparkaleku libre dago Santa Ana kalean".

non hain zuzen, Udaltzaigoaren arabera. Herriko aparkaleku zonaldeak, Santa Ana ingurukoa, Plaza txikikoa, Nafarroa plazakoa, Urruzuno kalekoa, Pedro Muguru-zakoa eta auzoetakoak dira. Orain, Leku-Eder-eko lanak direla eta, Plaza txikiko aparkalekuak murriztu egin dira. Honi, Ikastolako haurren jolasorduetan, aparkaleku erdiak kentzen direla gehitu behar zaio. Ostegunetan, arazo guzti hauek biderkatu egiten dira. Plaza txikiko merkaturia, duela urte batzuk baino hiru aldiz handiagoa da; kale askotan lanak daude eta udaltzainak bi edo hiru baino ez dira egoten. Ostegunetan trafikoa izaugarria izaten da eta udaltzainek ezin izaten dute egoera kontrolatu. Horregatik ostegunetan autoa gutxiago erabiltzea gomendatzen du udaltzaingoak. Leku-Eder-eko lanak bukatu artean, ostegunetan trafikoak arazo larria izaten jarraituko du.

Seinalizazio beharra

Udaltzaingoa herriko trafikoa hobetzeko lanetan ari da. Herritarrengandik jasotako kexetatik hainbat behar zeudela ikusi dute. Batetik, seinalizazioa hobetzeari ekin diote, seinale bertikalak egoki jarritz eta lurreko markak pintatuz. Dena den, zenbait lekutan ez dira lurreko markak pintatu, estetikak izan baitu lehentasuna. Bestetik, errelebu bakoitzean bi hiru udaltzain baino ez dago, eta autoritaterik ezean, infrakzioak errazago egiten ditu gidariak. Isunei dago-



➔ Kamioiek ere badute aparkaleku berezia.

kienez, inguruko herrietako isunik merkeenak omen ditu Elgoibarrek. Gaizki aparkatzeagatik 1.000 pezetako zigorra jartzen da. Isunik gehienak, erretserbatuak ez errespetatzearen eta denbora epe mugatua duten aparkalekuak ez gordetzearen jartzen dira. Dena den, Udaltzainen asmoa isunak jartzea baino, zenbait jokabide oker aldatzea omen da. Beharbada, irizpide berdinetan kasu guztietan ez aplikatzea izan daiteke errurik handiena.

Bitxiena, ordea, jendeak isunaren aurrean izaten duen erreakzioa da. Normalean Udaltzainarengana jo-tzen dute guztiz haserretuta, gaizki aparkatuta eta isunik gabe dauden auto asko daudela adieraziz, eta beraiei ere isuna jartzeko eskatuz. Jendeak isun gehiago eskatzen du, baina isuna norberari jartzen zaionean. Dena den, Udaltzainek esan digute, ez diete gaizki dauden auto guztiei isuna jartzen, egunak ez baitu nahikoa ordu hori

egiteko.

Elgoibarren ez dago grua edo garabia municipalik. Trafiko legeak baimentzen duen kasuetan, badoa errespetatzen ez denean, bigarren ilaran aparkatzen denean, grua pribatuei deitzen zaie traban dagoen autoa kentzeko. Autoa gruarekin ekarri ondoren zepoa jartzen zaio eta jabeak autoa berreskuratzen nahiko balu, g ruaren zerbitzuaren zenbatekoa ordaindu beharko du.

Kamioiei dagokienean, aparkaleku arazoa asko arindu da azken aldian. Ibilgailu handientzako aparkaleku erretserbatu bat Trenbide kalean dago eta beste bat Meliton-en. Hobekuntza, ordea, ez da borondatez gertatu; isun asko jarri ondoren etorri da aldaketa.

Herri barruan arazorik latzena, kaleetan zehar ibili behar duten partitzaileena da. Zamaketa lekuak errespetatzen ez direnez trafiko arazo handiak sortzen dira. Soluzioa, bakarra: bestee-ganako errespetua izan.

**Isunik
gehienak,
erretserbatuak
ez
errespetatzearen
eta denbora
epe mugatua
duten
aparkalekuak
ez
gordetzearen
jartzen dira.**

Aparkaleku nahikoa al dago Elgoibarren?

Aparkaleku gehiago egon behar litzatekeela uste dut, daudenak nahikoa ez direla argi eta garbi baitago. Eguneko edozein ordutan, eguerdian eta gauean batez ere, auto mordo bat egoten da debekatutako zonetan aparkatuta, eta arrazoia ez da ibilgailuen jabeen arduragabekeria, herri barruan aparkatzeko dagoen leku eza baizik.



Inork ezingo du ukatu Elgoibarren aparkaleku falta ez dagoenik. Nahikoa da zapatu arratsaldeetan, kanpotik etortzen diren gazte mordoarekin, anbulategitik estaziorantz doan kalea autoz beteta egonik, agintariak behin eta berriro bertatik pasa arren, batek ere isunik ez daukala ikustea. Nire ustez, egoera honek Udalaren jokabidea zein den azaltzen du argi eta garbi: aparkaleku falta dagoela onartzen du eta debekatutako lekuetan aparkatzen uzten du.

Nire ustez, herri batek azpiegitura sare egokia izan behar du guztiak ondo funtziona dezan. Horien artean, noski, aparkalekuak egon behar dira. Bi mila lagunentzako lekua dagoen futbol zelai batean, 30 autorentzako aparkalekuak jartzea bezala da.

Elgoibarren ekintzaren bat dagoenean ere, hile bukaerako feria eta ostegunetako merkatua kasu, ezin izaten da Plaza txikian eta inguruan aparkatu. Hori dela eta, San Frantzisko, San Bartolo-

me, Errosario eta Pedro Migel Urruzuno kaleetan bizi diren asko eta asko aparkalekurik gabe gelditzen dira. Kontutan hartu beharko litzatekeen gauza dela uste dut eta nolabait, soluziobidea aurkitu.

Soluziobideen artean, herri erdian aparkalekuak egitea legoke. Posible den gauza bat dela uste dut, parking-a egiteko terrenok egon badaude eta. Terreno hauek pribatuak direla uste dut baina ikerketa ekonomiko bat egin liteke bideragarria denetz ikusteko. Parking horretako aparkalekuak ez lirateke saldu behar nire ustez. Batzuk alogeran jartzearen aldekoa naiz, eta beste batzuk denbora epe jakin baterako izango lirateke, ekimen pribatuak gestiona zezakeelarik.

Dena den, pertsona ulerkorra naiz eta zera gaineratu nahi dut: ez dut ezagutzen aparkatzeko arazorik ez duen herri ezta hiririk ere, biztanleria txikia dutenek salbu.

Ainhoa Idarraga



Kotxeak ematen duen erraztasunak ondorio latzak ekarri dizkigu. Herria biziezinezkoa jarri zaigu, batez ere kotxea dugunon portaeragatik.

Agresibitatea, oinezkoekiko erreparueza, espaloiak kotxez beteta oztopo bihurtzen dira edadetuentsat, elbarrituentzat. Kontu hauek aski ezagunak ditugu, ez gure herrian bakarrik, baita albokoetan ere. Gurean, honelako portae-rak maiz suertatzen dira, agian, beste moduko portae-ira izango genduke garabia erabiliko balitz. Hala ere, herrikoen artean dagoen iritzia, halabeharrezko ondorio bat delakoa da.

Herri barruan, plaza txiki aldean, lur azpiko aparkaleku bat eraikiko balitz, haseran nahi adina leku izango genuke, baina berehala izango litzateke bera ere gutxi. Zergatik gertatzen da hau? Lehenengo, kotxe kopurua etengabe gehituz doalako, eta bigarrenik, aukerak berak bultzatuko gintuzke kotxearekin bertaraino joaten, nahiz eta premiarik ez izan. Bigarrena da batez ere, arazo askoren oinarria, ez dugulako eztabaidatzen kotxearen erabilera.

Sarritan uskerietarako erabiltzen dugu kotxea, zenbaitek txikito batzuk hartzeko plaza txikian aparkatuko du, ez diot galeraziko horrelakorik

egitea, bere eskubidea du horretarako, baina axolagabeki jokatzeak oraingo egoerara ekarri gaitu.

Bestetan, nahiz eta berrehun metroren barruan aparkaleku txukun bat izan, adibide bezala, Santa Ana kale barrenean dagoena, Eroskiren parean aparkatu behar dugu, hirugarren lerroan bada ere, edo espaloai gainean, eta horretarako beti dugu aitzakia- ren bat prest: "berehalanator, "minutu bat", "kotxe barruan egongo naiz", "ez dago inon aparkatzerik", eta horrelako asko, guztianik neuk egin dezadan eta bitartean albokoak izorratzea dauka.


Ardurarekin jokatzea dugu irtenbide bakarra, batetik herriko agintariek eta bestetik guk geuk, kotxea hartzea erabakitzen dugunok. Gure agintariek, akordioen bidez, eraikuntza berrietan, garaje publikoen kopuru bat sortzeko, biztanleen kexuak bideratu berehalako erantzun bat emateko.

Baina hala eta guzti, neurri guztiak alperrikakoak izango dira, kotxea dugunok ez badugu arazoa konpontzerik nahi.

Javier Oñederra


ETA ZURE USTEZ?

Aparkaleku nahikoa al dago Elgoibarren?



Enrike Aizpurua
45 urte, adiministraria

Ez. Problemak beti izaten dira, ni asko etortzen naiz bankura eta ez dot askotan lekurik ikusten. San Roke aldian bada go lekua, baina urruti dago.



Xabier Aranbarri
27 urte, txoferra

Aparkatzeko arazua badaoz. Herrixan bertan eta kanpuan ere falta dia aparkalekuak. Kaliak nola daozen begiratu besterik ez dao.




Nekane Canaban
48 urte, klinika auxiliarra

Senarrak beti izaten du aparkatzeko arazoa. Apar-kaleku gehiago egin behar-ko litzateke baina terenoa-ekin hain dago arazo latza...



Ana Fernandez
21 urte, administraria

Askotan ez duzu aparkale- kurik topatzen. Plaza txi- kian ere Ikastola dela eta, isuna jartzen dizute. Agian lur azpiko aparkalekuak egin litezke.



Nicolas Merino
51 urte, pintorea

Arazoak daude, noski. Elgoibarren ez dago apar- katzeko zonalde onik. Solu- zio ona erreka estaltzea li- tzateke baina oso garestia izango da seguraski.



Petra Gilete
29 urte, etxeoandrea

Herri erdian ez dago apar- kaleku nahikoa. Santa Anan bizi naiz eta han ez dago arazorik, baina Erro- sario kalean geundenean arazoak beti.

CHINA TOWN
Txinatar jatetxea

- ▷ 2, 3, 4, 5, 6, 8, pertsonentzako menuak
- ▷ Ezkontzak, Despedidak...
- ▷ Etxera eramateko janaria

Eguneko Menua:
900 pta

Ifar-Kale, 3. ☎ 70 21 55
EIBAR

Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

EIBAR

OSASUNDEGIA

1- Alergologia	9- Ortodontzia
2- Kardiologia	10- Otorrinolaringologia
3- Zirugia	11- Pediatria
4- Zirugia maxilo faziala	12- Sikiatria
5- Dermatologia	13- Radiologia
6- Ginekologia	14- Traumatologia
7- Laborategia	15- Urologia
8- Barne medizina	

"Plazara dantzara"

Musikeskolako dantza eskolako ikasleak eta Udal Txistulari Taldea Eibarren izango dira datorren hilaren 27an, larunbata, San Andres jaien barruan, "Plazara Dantzara" izeneko ikuskizunean parte hartzeko. Musikeskola dantzariak Eibarko *Kezka* eta Debako *Gure Kai* taldeekin batera jardungo dute, berriro ere gure herrietako plazak dantzariekin beteaz. Ikuskizuna Gabon zahar ferian eta Debako Soro feria egunean aurkeztuko dute berriro.

Jarrairen manifestazioa


Jarraik manifestazio bat antolatu du larunbat honetako arratsaldeko 6,30etarako Maalako parkean. Manifestazioa errepresioaren aurkako izango da, eta beraiek azaldu duten bezala, manifestazioak jai kutsua izatea nahi dute. Ekintzak goizean goizetik hasiko dira trikitalari eta hanka luzeekin. Manifestazioan, duela 9 urte preso dauden Mikel Alberdi, Iñaki Jaio eta Inazio Iriondo gogoratuko dituzte.

Irakasle txiletarrak IMHn

Txileko CATEko (Centro de Alta Tecnologia) bi irakasle Erraminta Makinaren Institutura egin zuten bisita joan den ostiralean. Irakasle hauek Estatu osoan zehar dabilta automatizazio eta erraminta makina lantegiak bisitatu. Txileko irakasleek IMHko automatizazio arloko irakasleekin, etorkizunerako teknologia transferentzia eta formazio arloko kooperaziorako lehen urratsak eman zituzten.

Elkarriren firma bilketa

Elkarrik, elkarrizketa bultzatzeko mugimenduak, mahaiak jarriko ditu larunbatean, hilak 28, firma bilketa egiteko. Goizez, 11etatik 2etara bitartean bi mahai jarriko dituzte, bata, Plaza handian eta bestea, King-Kong parean. Arratsaldean Maalan eta King-Kong-en jarriko dira mahaiak.



AZKUE

Herriko 27 gazte hauek pasa den larunbat arratsaldean sendotza jaso zuten Jose Maria Setien gotzaiaren eskutik. Gazte gehienak Jose Luis Bellosok zuzentzen duen Maalako parrokiakoak dira eta guztiek 18 urte dituzte. Sendotza aurretik Setien gotzaia ordu t'erdiz gazteekin hizketan egon zen. Jose Maria Setien bisita pastoralak egiten dihardu eta dagoeneko bi aldiz egon da herrian. Gotzaiak Maalako eliz barrutia bultzatu beharra azpimarratu zuen. Datorren abenduaren 12an hirugarren bisita egingo du gure herrira. Aldi honetan Sallobenteko nekazariekin egotera eta beraien arazoetaz hitz egitera etorriko da. Goizeko 10,30etan meza emango du Sallobenteko ermitan eta segidan auzokideekin solasaldia izango du.



Hilaren 27, larunbata, Amabirjina Milagrosaren eguna da. Maalako elizan egoten zen Amabirjinaren irudia, San Bartolome elizara eraman zuten. Argazkian ikusten den bezalaxe, 1985. urteko azaroaren 27an, San Bartolome elizatik Maalara eraman zuten bueltan Amabirjina. Jendea, kandelak eskutan, prozesioan joan zen Maalako elizaraino.

●● GURE GAIA ●●

Zein da Udalaren 10 urteen zure balantzea?

JUAN LOYOLA


Mendaroko Alkate ohia

Abenduaren hogeitamarrean betetzen dira hamar urte Mendaro herri gisa eratu zela. Ordurarte bi herriren morroi ginen: hau da, Elgoibar eta Mutriku. Zazpi urteko biderapenen ondoren lortu genuen geure buruaren jabe izatea.

Lehendabiziko Alkate izateko, ni neu aukeratu ninduen herriak eta zortzi urte egin nituen ardura horrekin. Nahiko gogorrak izan ziren lehenengo urteak; izan ere, Mendaron ez zegoen azpiegiturarik. Denbora gehiena jesticioak egiten pasa nuen; hau da, ondoren egin denaren bidea jartzen.

Gaur egun Mendarok baditu beste herri askoren gisa hainbat azpiegitura eta zerbitzu. Egin nituen jesticio lanak ari dira orain beren fruituak ematen. Egin diren obrarik garrantzitsuenak honako hauek dira: Hospitala, kale eta plazak berritu, Kultur Etxea eraiki, erreka bideratu uholderik gerta ez dadin, baserrietako bideak egin, Pelotalekua eraiki, industrialdeak sortu, eta orain Ikastola bera. Zerbitzu aldetik ere eskeintza zabaldu egin da erabat. Guzti hau lortzeko leku askotan jo behar atea. Izan ere guzti horretarako diru asko behar, orain hamar urte beharra ikusten zen eta aurrera eramateko ahaleginak egin ditut; hau da nik txikitatik izan dudan ametsa.

Ez dut uste Mendaron inor egongo denik, herriak bere burujabetasuna lortu ondoren horren damurik izango duenik, guztia herritarren borondate onarekin lortu da eta.




Jose Mari Garate
Langilea

Neretzako normal xamar, ez gora ez behera, ekilibratua.



Leonor Barreras
Tabernaria

Balantzea, positiboa dela uste det, gauza asko egin baitira.



Andres Egaña
Kazetaria

Oso balantze positiboa. Udaletxea dugu netik, poliki-poliki, gauza asko egin dira.




Iruñe Berasaluze
Ikaslea

Balantzea positiboa da, gauza asko egin dira, baina oraindik, asko daude egiteko; zenbait arlo ez direla gehiegi landu uste det, adibidez, kultura.



Izaskun Jauregi
Administraria

Herri mailan, gauza asko egin dira, asko falta diren arren. Politikoki, Euskal Herriaren problematika askoz gehiago bultzatu beharko litzatekeela uste dut.



Jose Manuel Idoeta
Mekanikoa

Nik uste det, diru guztia, urbanizazioan gas-tatzen dela eta kultura mailan, bai gazte eta helduentzako ekintzetan Mendaro hutsik geratzen dela.

✓ Mendaroko 10. urteurrena ospatzeko egitaraua

Datorren abenduaren 30ean 10 urte izango dira Mendaro, Elgoibar eta Mutrikuko udalerrietatik banatu zela. Hori dela eta Mendaroko Udalak hainbat kultur ekitaldi antolatua du bendurako.

Batetik, bi erakusketa izango dira hilabete osoan zehar Kultur Etxean. Lehengoa, abenduaren 4tik 12ra bitartean izango da (hilak 9 eta 10 ezik). Bertan "Jendaurreko Pintura Lehiaketan" saritutako lanak ikusi ahal izango dira. Bigarren erakusketa Mendaroko aintzinako argazki zaharrei buruzkoa izango da eta hilaren 18an hasi eta 26an bukatuko da.

Hauetaz aparte, hainbat musika saio izango dira abenduko asteburuetan. Getariako Musika Bandak kontzertu bat eskainiko du Garagartzako elizan Kontzeptzio egunean, abenduak 8. Hilaren 18an, musika klasikoko kontzertua emango dute Karmele Prat pianojoleak eta Juan Agustin Arriolak, bibolinjole mendarotarrak. Ekitaldia gaueko 10etan izango da Azpilgoetako elizan.

Abenduaren 25ean, Mendaroko abesbatzak meza abestuko du Garagartzako elizan eta 26an Elgoibarko Musika Bandak kontzertu bat eskainiko du Azpilgoetako elizan. Abenduaren 29an, Mendaroko ikerketa historikoa-
ren aurkezpena egingo du ikerlanaren zuzendaria den Joseba Agirreazkuena-
ga irakasleak. Azkenik, Mendaroko Udalaren sorreraren egunean, abenduaren 30ean, kalejira izango da Bizi-Poza txarangarekin goizeko 10etan. Ondoren Meza ospatuko da Azpilgoetako elizan eta segidan luncha izango da herritarrentzat.

OKERRAK ZUZENTZEN:

Urriak 23an ezkondukoak:

- Alberto Gallastegi eta Arantxa Zulaika
- Jose Inazio Urain eta Mari Karmen Egaña

Jai giroan ospatu zen Kurutzperen 25 urtemuga



Kurutzpe Kultur Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten, tartean, Mendaroko Dantzari taldekoen saioa. Azpilgoetako plazan dantzariak ezpata dantza, arku dantza eta beste zenbait dantza eskaini zituzten bertara hurbildu zen jendearen aurrean.




Argazkian ditugunak, Kurutzpe elkartetik pasa diren zenbait mendarotar dira. Kurutzpek bazkide ugari izan ditu baina azaroaren 14an, elkartearen urteurrena ospatzeko egin zuten bazkarian, argazkian ikus daitekeen bezala, 25 lagun baino ez ziren bildu. Bapo bazkaldu eta gero egunaren oroigarri gisa argazki hau atera zuten.

Kurutzpe elkarteak

1967.eko azaroaren 17an elkartu ziren lehenengo aldiz Jose Angel Andonegi, Jose Agustin Arriola, Raimundo Bueno eta Agustin Berasaluze, beste askoren artean, Kurutzpe Kultur Elkarteak sortzeko asmoz. Beraien helburu nagusia, herriak zuen Udaletxe ezak sortarazten dituen hutsuneak betetzea zen.


Mendaro, Mutriku eta Elgoibarko Udalen artean banatua zegoenez, herriko ekintzekiko ardura falta nabaria zen. Horrela, elkarte honek, kultura aldetiko ekintzak antolatzeari ekin zion. Hala nola, Mendaroko lehenengo liburategia sortu zuten (231 libururekin), herriko jaiak antolatu, zine emanaldiak igandero, mendi irteerak, bertsolari txapelketak, mota guztietako hitzaldiak, Mendaroko dantzari taldea, kirolak (Kilimoi Futbol Elkarteak). Aipatzekoa da, jada garai hartan, frontoi estali baten beharra ikusten zutela. Esan beharra dago baita ere, Ikastola, kilimoi Futbol Elkarteak eta Udala bultzateko lehen pausuak Elkarte honen eskutik eman zirela.



Azken urteotan, arazo ezberdinak direla medio, Kurutzpe desagertzeko proposamen eta istilu asko izan dira. Askok, zalantzan jartzen dute Kurutzpe-ren papera, Udaletxeak sortu zenetik. Badirudi, Udaletxeak, bere barnean behar lukeela izan kultur arlo hauetaz arduratuko den sail bat. Hala ere, tamalgarrira litzateke, hogeita bost urte iraun duen herrielkarte hau desegitea. Uste dugu, horrelako maila batean lan egiteko, herriarentzat askosaz aberasgarriagoa dela, bere gogoz eta borondatez lan egingo duen pertsona talde bat izatea, soldata baten truk lan egingo duen funtzionari bat baino; kontutan izanik, azken kasu hau, askoz ere garestiagoa litzatekeela.

Kurutzpe-ren etorkizunaren ardura, gazteon eskutian dagoela uste dugu, azkenik. Hala izanik, gazteoi eskatzen dizuegu herriaren alde lan egiteko gogoia baduzue, anima zaitezteela ekintzetan parte hartzea eta direktiban sartzen.

J. C. Cebrian "Cebri"



Lili-moon eko abeslaria

■ Noiz eta zergatik hasi zineten elkarrekin jotzen? ■ Duela urtebete pasa, eta kalean zerbait egiteko beharra ikusi genuelako.

■ Zein musika mota jotzen duzue?

■ Musika besterik ez. Etiketak ez ditugu gogoko.

■ Talderen baten eraginik?

■ Askorena: Immaculate Fools, The Church,...

■ Leku itxi edo irekian? ■ Frontoia ez den edonon.

■ Laguntzarik? ■ Ekonomikoa ez, baina "Orbe" eta beste zenbatiak asko laguntzen digute.

■ Zer moduzko kritikak jaso dituzue?

■ Egon diren apurrik onak izan dira.

■ Nor da konposatzailea? ■ Ni neu, baina besteek asko laguntzen didate.

■ Seattle, Manchester edo Mendaro?

■ Mendaro, besteak muntaiak dira.

■ Intsumiso ala objetore? ■ Ni libratu egin naiz, baina hauei laguntzeko prest nago.

■ 60ko edo 80ko hamarkada? ■ 70eko.

■ Zer moduzkoa da euskal musikaren etorkizuna? ■ Ona. hemen beti egin izan dira gauza oso interesgarriak.

■ Nondik ingelesez abesteko grina?

■ Eszelentziaz, rock-aren hizkuntza da.

■ Abeslari eta abesti gogokoena? ■ The "Cult"eko abeslaria eta Al Stewart-en "The year of the cat".

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Aspigoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR

TOKI ALAI jatetxea


- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak

Goizeko 8etatik zabalik

Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72

Artañola: "22 urterekin hasi nitzen solfeoa ikasten"

Juan Agustin Arriola Donostiako Kontserbatorioko Orkestan biboliña jotzen ibili ondoren, momentu honetan teknikaren hobekuntza ikasketan eta musika irakasle gisa dabil.



-Noiz hasi zinen musika munduaz interesatzen? - Betidanik interesatu izan zait musika baina interpretatzen 13 urte nituela hasi nintzen, hasera batean kitarra baten laguntzaz, 22 urte nituela biolin bategatik aldatu nuelarik.

- Musikariak, jaio ala jardunaren ondoren egiten dira? - Argi dago dohai batzuk behar direla, baina dohai hoiek lantzea eta lantzen jakitea oso garrantzitsuak dira.

- Euskal Herrian musika klasikotik bizi al daiteke? - Maila on bat izanez gero handik edo hementik bizi daiteke.

- Aspiraziorik? - Profesionalki orkestra on batean jotzea, gainerantzean lasai bizi izatea.

- Simon and Garfunkel ala Led Zeppelin? - Biak entzun ditut eta biak gustatzen zaizkit.

- Irakasle bereziren baten

ikasle izan nahi al zenuke? - Ez, Cristian Ifrin errumaniarrarekin oso gustura nago.

- Donostia ala Mendaro? - Donostia ez dago gaizki, baina nahiago dut Mendaro.

- Herritarren aurrean piano baten laguntzaz soilik jotzeak zer suposatzen du? - Batetik erretu eta erresponsabilitate handia da, baina bestalde, musikari orok duen ametsa beteko dut, solista bezala bere herritarren aurrean jo ahal izatea.

- Bitxikeriaren bat? - 22 urte nituela solfeoa ikasten hasi nintzen. Kontserbatorioko ikasketa erritmoa oso motela egiten zitzaidanez (6 eta 7 urteetako umeekin nengoen klasean), urte haietan magisteritza ikasketak egiten ari zen Amaia Etxeberria mendarotarrarekin ikasten nuen solfeoa arratsaldeetan bere pisuan.

Abenduak 4 larunbata

12,00: PINTURA ERAKUSKETA "Jedeurreko Pintura Lehiaketa"n saritutako lanen erakusketa. Tokia: Kultur Etxea Ordutegia: 12- 2etara. Abenduaren 12a arte.

15,30: FUTBOLA

Beteranoen arteko partidua. Kilimon F.T.- Elgoibar F.T

Abenduak 8 asteazkena

Kontzepzio eguna

11,00: MEZA NAGUSIA Garagartzako Elizan Ondoren KONTZERTUA "Getariako Musika Bandarekin" Garagartzako Elizan

Abenduak 12 igandea

FUTBOLA Kilimon K.T.-Azkuene C. A. S.

Abenduak 16 osteguna

21,00: BILERA Mendaroko Gazteak dantza taldea bilduko da Tokia: Kultur Etxea

Abenduak 18 larunbata

12,00: ARGAZKI ERAKUSKETA Mendaroko aintzinako argazkiak Tokia: Kultur Etxea Ordutegia: eguerdiko 12etatik 2etara Abenduaren 26a arte. 22,00: KONTZERTUA Biolina: Juan Agustin Arriola "Arta"

Pianoa: Karmele Prat Tokia: Azpilgoetako eliza.

Abenduak 24 ostirala

16,00: OLENTZERO Garagartzako Plazatik Antolatzailea: Kurutzpe K.E.

Abenduak 25 larunbata

Natibitate eguna

11,00: MEZA NAGUSIA Garagartzako Elizan Ondoren MENDAROKO ABESBATZAREN emanaldia. Garagartzako Elizan

Abenduak 26 igandea

11,00: MEZA NAGUSIA Azpilgoetako Elizan

Ondoren KONTZERTUA

"Elgoibarko Musika Banda"rekin Azpilgoetako Elizan

Abenduak 29 asteazkena

21,00: MENDAROKO IKERKETA HISTORIKOAREN AURKEZPENEA

Abenduak 30 osteguna

Mendaroko Udalaren 10. urteurrena

10,00: KALEJIRA Bizi Poza txarangarekin 11,00: MEZA NAGUSIA Azpilgoetako Elizan Ondoren LUNCHA. Azpilgoeta Plazan "Bizi Poza" txarangarekin.

kiliBARREN Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aingeru Gallastegi, Mikel Garate, Haritz Goikoetxea, Iraide Loiola, Maria Longarte, Ziortza Urbieta, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



Morkaikoren 50. urteurrena



Joan den astebukera honetan Morkaiko Mendizale Elkartek 50. urteurrenaren ekintza nagusiak ospatu ditu. Igandean, hilak 21, Udal Txistularien kalejiraren ostean, meza ospatu zuten hildako bazkideen alde. Ondoren, omenaldia egin zitzaien elkarteko lehendakari izan diren 24 elgoibartarrei eta ohorezko lehendakari direnei ere bai. Ekitaldian Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea, Mendizale Federazioiko lehendakari den Pako Iriondo eta Morkaikoko bazkide den Juan San Martin Arartekoa izan ziren. Morkaiko elkarteko lehendakariak,

Andoni Goikoleak, lehendakari izandako bakoitzari eskumakila bana eman zien. Ondoren, alkatearen eskutik, Udalaren oroigarria, eta, Pako Iriondoaren eskutik, Federazioak emandako oroigarria jaso zuen Andoni Goikoleak. Udal Txistularien eta Haritz Dantzari taldearen aurrekua eta gero, Morkaikoren egoitzaren kanpoko aldeko oroigarria desestali zuen ohorezko lehendakari den Juanito Arrietak. Ikastolako frontoian 120 pertsona bildu ziren bazkariaren inguruan eta, gauera arte luzatu zen dantzaldiarekin amaitu zuten eguna.





*Eskulanean
saiatzzen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

PETUNIA

Modak



Errosario 12, tel: 74 16 48

Jose Antonio Urbietta:

"Etorkizun bila joan ginen Australiara"

Jose Antonio Urbietta elgoibartarrak, orain dela 13 urte bere bizitzako erabakirik gogorrenetarikoa hartu zuela

komentatzen digu. Urte haietan zegoen egoera ikusita, maleta egin eta familia guztia hartuta Australiarantz abiatu zen.

- Orain dela zenbat urte joan zinen? Zergatik?

-Martxoan 14 urte izango dira. Hemendik alde egitearen arrazoi nagusienetariko bat, lan munduan bizi genuen egoera larria izan zen batez ere. Ez nuen inolako etorkizunik ikusten nire alabentzat. Beraz, Irungo emigrazio zentrura joan, eskaintzen zituzten ogibideak ikusi eta baietza eman zidatenean alde egin nuen.

- Zein da Australiara heldu zinenean jaso zenuen lehen impresioa?

-Oso ona izan zen. Etxeek asko harritu ninduten, oso politak baitziren. Gainera, honelako etxeetan bizi direnak ez dira aberatsak, klase ertaineko langileak baizik.

- Arazorik hizkuntzarekin?

-Eduki dudak oztoporik handiena izan da. Lanetik irtetea kurtso batzuetara joaten nintzen, baina oso gogorra egiten zitzaidan. Ikasi dudak guztia, besteei erantzunez, telebista ikusiaz eta irakurketaren bidez izan da. Lankideek ere asko lagundu naute. Nire alabei, oster, errazagoa egin zaie, ikasi egin baitute.

- Zertan aritu zara urte hauetan?



“Australian urtero ospatzen dugu Aberri eguna eta ia beti, negarrez bukatzen dut jaia”.

-Lanean. Lehenengo zazpi urteetan modelista bezala aritu nintzen, hurrengoak ebanista bezala. Haseran ordu t' erdi egiten nuen etxetik lanera, oso astuna zen. Beraz, altxairuzko lantegiak etxetik gertuago nituen, bertan sartu eta egundaino. Gaur egun aintzinako tipoak egiten ditut batez ere, hobetoen ordainduta dagoen lana baita.

- Australian mundu guztiak al du lana?

- Langabezia ere bada, biztanleriaren %9a gutxi gora behera. Baina

aukera asko dago eta benetan lan egin nahi duenak ahal du.

- Askok kostatu al zitzazun mundu hartara egokitzea?

-Gehien kostatu zitzaiona nere emaztea izan zen. Familiako besteok etxetik irteten ginen lanera, ikastera, baina bere lana etxean zegoen. Beraz, hasera batean jendearekin erlazionatzeko aukera gutxiago izan ditu.

- Nola aurkitu duzu Elgoibar joan zinetik?

- Lehenengoz esan, herriko itxura fisikoek

sufritu izan dituen aldaketak asko harritu nautela. Baina benetan gehien harritu nauen arazoa, momentuko lan munduaren egoera larria izan da. Ni joan nintzenean gauzak oker zeuden baina orain askoz ere okerrago aurkitu ditut. Alde onak ere badira. Jendeak lehen baino gehiago hitz egiten du euskaraz eta oso ondo iruditzen zait.

Bestalde, oso harrera ona izan dut herri mailan. Kanpoan hainbeste urte egin ondoren jendea zutaz gogoratzeak asko poztzen zaitu. Anaiaren hileta elizkizunean ere jende asko egon zela iruditu zitzaidan.

- Herriminik sentitzen al da?

-Bai, asko. Ni oso erromantikoa eta sentimentala naiz. Australian urtero ospatzen dugu Aberri eguna eta ia beti negarrez bukatzen dut jaia. Etxetik at egoteak gehiago sentiarazten duela diote eta nire kasuan ere halaxe da.

-Elgoibarrera bueltatzeko asmorik?

- Bai, dudarik gabe; baina hurrengo batean nire emaztearekin etorriko naiz. Hala eta guzti ere bisita gisa, ez bertan gelditzeko.

Isabel Ansola

Agustin Unzueta

"Moskote"

Kotxe saltzailea



- **Futbola ala motorraren mundua?** - Biak gustatzen zaizkit.
- **Arratsaldeko zerbeza ala gaueko konbinatua?** - Ez dot konbinaturik edaten.
- **Zer da emakume baten begiratzen duzun lehen gauza?**
- Begiak eta gero goitik behera.
- **Eta kotxe batean?** - Estetika.
- **Zer kenduko zenuke Elgoibartik eta zer jarri?** - Ez dot sekula pentsatu.
- **Berriro jaioko bazina, neska ala mutila izatea gustatuko litzaizuke?** - Mutila.
- **"Espektakulua ematea" ala diskrezioa?** - Diskrezioa.
- **Zer kolonia erabiltzen duzu?** - "Armani" eta "Agua Brava".
- **Zein abestiren letra dakizu buruz?** - Batena ere ez.
- **Ikusi duzun azken pelikula?** - "Maximo Riesgo".
- **Urteko zein hilabete gustatzen zaizu gehien?** - Urria. Nire urteguna urrian da!
- **Zer nahiago: liburu bat idatzi, pelikula bateko protagonista izan ala abesle izan?** - Hiruetatik bat ere ez. Agian abeslari, baina ez daukat ahotsik.
- **Puruak ala zigarroak?** - Puruak.
- **Argazkiak atera ala argazkietan atera?** - Biak.
- **Bonboiak ala larrosak?** - Bonboiak. Horrela nik jan ditzaket.
- **Gorriak ala urdinak?** - Gorriak, noski.
- **Nolakoak izan behar dute futbolistaren hankek? Eta emakume batenak?** - Futbolistarenak sendoak. Emakumearenak luzeak.
- **"Crisis"ak eragiten al dizu?** - Bai, noski. Gehiegi.

Isabel Azpeleta

BERTSOTAN

MORKAIKO

Urterik urte iraun ondoren
beti zuzen eta tinko
elgoibartarrok izan zaitugu
bihotz bihotzez begiko,
mendizaleak zure barnean
bere egarria ito,
bilakatu zara mito,
izango al da betiko! (Bis)
Mendia maite dugun guztiok
inoiz ez dugu etsiko,
mende erdia egin duzunez
mila zorion Morkaiko (Bis)

German Meabebasterretxea



LARUNBATA 27
JAI-BORROKA eguna Elgoibarren
Gazte antolatuta, errepresioa apurtu
ManiFESTAZioa 6,30etan Malan

PUBLI
ZITATEA
74 41 12

Rikardo Arregiren hitzaldia Kultur Etxean

Gaur ostirala, hilak 26, izozketei buruzko hitzaldi interesgarria emango du Rikardo Arregik, "Doktor Kiko" izenez ezaguna denak, Kultur Etxeko erakusketa gelan iluntzeko 7,30etan. Rikardo Arregi neurozirujanoa da, "Everest 92" proiektu zientifikoaren zuzendari izandakoa, eta izozketen arloan mundu mailan ezaguna. Mediku hau izozketen aurkako sistema baten asmatzaiteriko bat da, "neuroestimulazio medularra" deitzen denarena, hain zuzen.

Ego-Tokiko korrikalariak denboraldia hasi dute

Ego-Tokiko korrikalariak aurtengo denboraldiari hasera eman zioten Irunen korritu zituzten kros lasterketekin. Hasera nahiko kaxkarra izan zuten. Emakumezkoen junior mailan Carmen Pereak zazpigarren postua lortu zuen 3.200 metrotako luzeran. Oso postu eskaxa Carmenek duen mailarako. Senior-promesas mailan, Argiñe Gabilondo 11. postuan sartu zen helmugan, hiru urtez lasterketan parte hartu gabe egon ondoren. Luis Santamariak, lasterketa polita egin zuen 8.800 luzeran, 37. postuan helmugara heldu arren.

Atletismo eskolatik, hiru ikastetxeetako 14 hurrek Irungo lasterketan hartu zuten parte. Haur guztiek bukatu zuten lasterketa eta orokorrean ondo aritu ziren. Alebiren kategorian, Mireia Huidobro 6. helmugaratu zen 200 partaideren artean eta, infantiletan, Gorka Rodrig ez 7.a heldu zen 150 korrikalariaren artean.



Ana Gonzalez:

Gerriko beltza lortu duen lehen emakume elgoibartarra

- Ana, nola hasi zinen judoan? -Txikitatik judoa ikustera joaten nintzen eta beharbada hortik eta kalean eta aldizkarietan ikusitakoagatik etorri zitzaidan zaletasuna. Gainera, Manu Moraren gimnasiotik oso hurbil bizi naiz eta oso erraza zitzaidan bertaraino joatea. Hasi nintzenetik 8 bat urte izango dira.

- Kontaiguzu nola izan den gerriko beltza lortzeko pasa duzun azterketa. -Joan den igandean izan zen Bilbon, eta oso urduri jarri nintzen. Azterketa gainditzea oso zaila eta gogorra da. Mugimendu batzuk egitea eskatzen dizute eta gero, teoria ere egin behar izaten da. Arazorik handiena nerbioak kontrolatzea izan zen.

- Zer suposatzen du zuretzat, gerriko beltza duen Elgoibarko emakume bakarra izateak?

- Askok. Oso pozik nago eta harro ere bai.

- Gerriko beltza eta gero?

- Laugarren "dan" a izatea gustatuko litzaidake baina momentuz, bigarrenarekin hasi behar. Hiru urte itxaron behar ditut bigarren "dan"eko azterketara aurkeztu ahal izateko. Behin gerriko beltza lortutakoan, hurrengo maila gainditzea da judokaren helburua.



- Judoaz gain, sanboa ere egingen duzu. Nola zabilta sanboan? - Nahiko ondo. Euskadiko sanbo txapeladuna naiz eta Espainiako bigarrena.

- Bietatik zein duzu gogoken? - Judoa. Sanboa agresiboagoa da, gogorragoa, eta judoa, berriz, lasaia.

- Ba al duzu judoan, betetzea gustatuko litzaidakeen ametsik?

- Bai. Espainiako sanboko bigarren izan ordez, judoko bigarren izatea gustatuko litzaidake; aurre-rago, agian.

- Zein judokari gustatuko litzaiduke irabaztea? - Nire irakaslea den Manu Morari. Inoiz borrokatu dugu elkarrekin baina entrenamenduetan beti.

• Adina: 20.

• Gerrikoa: Beltza lehen dan.

• Zeletasunak? Judoaz gain, Takewondoa eta lo egin.

• Asteburuetan? Txapelketarik ez daukadanean kalera irten



karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak

San Bartolome 18
☎ 74 08 49



XABIER
ILEAPAINDEGIA

Eskatu
eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



EGAÑA
kotxe
konponketak

P. Muguruza 18. ☎ 74 01 98

Elizbar Ubilaba georgiarra, Nazioarteko III. Xake Txapelketako favorito

Datorren ostiralera arte, abenduak 3, luzatuko da Elgoibarko Nazioarteko III. Xake Txapelketa. Bertan nazioarte mailako maisuak diren Elizbar Ubilaba georgiarra, Gilberto Milos brasildarra eta Mikhail Suba errumaniarra arituko dira.

Elgoibarko Xake Txapelketak Felix Izeta, Patrice Etxegaray edota Jesus Iruzubieta bezalako jokalarientzako promozio bide izan nahi du. Guztira 10 jokalarik hartuko dute parte: Elizbar Ubilaba (2530 puntu), Felix Izeta (2510 puntu), Mikhail Suba (2500 puntu), Zenon Franco (2480 puntu), J. Mario Gomez (2450 puntu), F. J. Sanz (2410 puntu), Patrice Etxegaray (2410 puntu), Jesus Iruzubieta (2360 puntu), J.M. Calvo (2315 puntu) eta Juan Jose Saenz (2305 puntu).

Partidak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 4etatik 10etara bitartean eta erabiliko den sistema ligila erakoa izango da. Guztira 10 jokalaria dira eta denek denek kontra jokatu beharko dute. Horrela, egunero 5 partida jokatuko dira. Lehenengo bi orduetan 40 mugimendu egin beharko dituzte, gero, jokua kontrola deitzen dena dator: orduero 20 mugimendu egin



↳ Aurkezpenean, Udaletxeko eta Aldundiko agintariak izan ziren.

beharko dira eta gaueko 10ak baino lehen irabazlerik ez badago, hurrengo egunean jarraituko dira partidak. Txapeldunaren izena, abenduaren 3an, ostirala, jakingo da. Favorittoa, jokalaria guztien artetik puntuaziorik onena duen Elizbar Ubilaba georgiarra da: iazko txapelketako irabazlea eta nazioarteko maisu bikaina dena.

III. Nazioarteko Txapelketa 8. kategoriakoa da eta Elgoibarko Udalak eta Zubi-Ondo elkarteak antolatu dute, Euskadiko Xake federazioaren lagun-

tzaz.

Txapelketaz gain, Euskal Federazioak eta Elgoibarko Udalak Espainiako ipar aldeko jokalaririk onenentzako ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa, munduko entrenatzaile onena den Anatoly Bythkovsky-k emango du Kultur Etxean azaroaren 28tik abenduaren 4ra arte. Halaber, OHOKo 5., 6., 7. eta 8. mailako haurren artean, eskolarteko txapelketa jokatuko da igandean, hilak 28, goizeko 10etatik aurrera Kultur Etxeko goi solairuan.

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 0 - Amurrio 0 (3. maila)
Eibartarrak 1 - Elgoibar 0 (2. errejionala)
Mundaiz 1 - Elgoibar 4 (Jubenilak)
Elgoibar 3 - Bergara 3 (Kadeteak)
Real Union 3 - Elgoibar 3 (Infantilak)
Lagunak 6 - Elgoibar 1 (Neskak)

Eskubaloia

C.D.b. Leizaran 8 - Elgoibar K.E.E.T. 17 (Kadeteak)
Urnieta K.E. 2 - Elgoibar K.E.E.T. 33 (Jubenilak)
Baztango K.E. 18 - Elgoibar K.E.E.T. 9 (Neskak)

Areto futbola

Elgoibar A.F.3 - B ar Ainhua 4 (1. maila)
Elgoibar A.F. 9 - Pradisa 1 (2. maila)

DATOZEN PARTIDUAK

Futbola Mintxetan

LARUNBATA 27

10,00: Urki - Gazteak (Jubenilak)
12,00: Elgoibar K.E. - Zarautz (Infantilak)
15,30: Elgoibar K.E. - Irundarrak (Jubenilak)
17,15: Elgoibar K.E. - Gazteak (2.errejionala)
19,00: Eibartarrak - Anaitasuna (Neskak)

IGANDEA 28

10,00: Eibartarrak - Bergara (Jubenilak)
12,00: Elgoibar K.E. - Gure Txokoa (Neskak)

Futbitoia Urasandin

10,00: King-Kong-Bar Roke Ametsa - Sporting
11,00: Gorri beltz-Aldavas Univ. de Chile-Lagun Toki
12,00: Lucky Luke-Dinamo Kalimotxo Txirristaka-G. Garcia

Eskubaloia Kiroldegian

LARUNBATA 27
16,00: Elgoibar K.E.E.T. - Bizkor Fiansa (Kadeteak)
17,30: Elgoibar K.E.E.T. - JauJa (Jubenilak)

IDAMA ileapaindegiak

bi pertsonentzako **AFARI BAT** zozketatuko du



ILEAPAINDEGI MIXTOA

**EMAZTEGAIK ETA
SENARGAIK
ORRAZTEN DITUGU**

MAKILIAIK

**DEPILAZIO HOTZA
ETA BEROA**

MANIKURAK

SOLARIUMA

AURPEGI GARBIKETAK



Moztu zati hau, ekarri **IDAMA**ra eta **HERRI GAIN**en
birentzako **afari bat** irabazteko aukera izango duzu.

Zatoz!! Santa Ana 7an gaude. (☎ 74 40 26)

Izena..... Abizenak.....

Tel.....

Zozketa abenduaren 17an egingo dugu IDAMA ileapaindegian.

Musikeskolako ikasleen eta Udal Txistularien kontzertua astebururako

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek eta Udal Txistulari taldeak ostiralean, hilak 26, eta igandean, hilak 28, emango dituzte Santa Zeziliaren omenezko kontzertuak. Gaur, hilak 27, arratsaldeko 7etan izango da kontzertua Udaletxeko Biltzar aretoan. Kontzertuan, kitarra, akordeoia, bibolina, pianoa, klarinetea, txistua eta flauta joko dituzte. Igandean emanaldia eguerdiko 12,30etan hasiko da eta musikeskolako ikasleekin batera Udal Txistulari taldekoek joko dute.



AZKUE



Astelehenean, Santa Zezilia egunean, Ikastolako 1. mailatik 8. mailara bitarteko haurrek kalejiran ospatu zuten musikarien eguna. Bonbo, bibolin, flauta eta txistua-
ren hotsarekin zeharkatu zituzten herriko kaleak. Arratsaldean, Plaza handian, Santa Zeziliaren omenezko bertso hauek kantatu zituzten:

*“ Kalendarixuari
jarriaz begira
jada iritsi gera
gu hogeita bira
goizean goizetikan
kristoren mugida
musikoen omenez
gaurko kalejira.”*

OINETAKOAK
San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

KEMEN Belardenda
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

GORRINO
dekorazioa
San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

GURBIL Jatetxea
- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak
Orain probatu etxean egindako PIZZAK
Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

26 Ostirala

19,00 KONTZERTUA

I. Bereziartua Musikeskolako ikasleak eta Txistulari Udal taldea
Tokia: Udal Areto Nagusia

16,00 - 22,00 NAZIOARTEKO III. XAKE TXAPELKETA

Tokia: Kultur Etxea
Aste osoan zehar, datorren ostiralera arte, hilak 3, ordu eta toki berean.

19,30 HITZALDIA

Hizlaria: Rikardo Arregi
Gaia: Izozketak
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

27 Larunbata

09,00 AISIALDIKO EKINTZAK

Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Euskara Batzordea
OHoko haurrentzat

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Abenduko programazioa
Tokia: Zazpikiren lokala

18,30 MANIFESTAZIOA ERREPRESIOAREN AURKA

Antolatzailea: Jarrai
Tokia: Maala

19,30 ZINEA

"El ejercito de las tinieblas"
Tokia: Udal Areto Nagusia
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

28 Igandea

10,00 ESKOLARTEKO XAKE TXAPELKETA

Tokia: Kultur Etxea
OHoko haurrentzat

10,30 EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN BILERA

Tokia: IMH.

12,30 KONTZERTUA

I. Bereziartua Musikeskolako ikasleak eta Txistulari Udal taldea
Tokia: Udal Areto Nagusia

17,00 - 19,30 ZINEA

"El ejercito de las tinieblas"
Haurren sarrera: 150 pta.

29 Astelehena

16,00 XAKE IKASTAROA

Irakaslea: Anatoly Bythkovsky
Tokia: Kultur Etxea
Abenduaren 3a arte.

30 Asteartea

20,00 HITZALDIA

Gaia: Sexualitatea eta HIESa
Hizlaria: Amaia Vazquez. Sexologoa
Tokia: Ubitarteko lokalean
Antolatzailea: Errotatxo

1 Asteazkena

HIESaren mazioarteko eguna

17,00 MAHAI INFORMATIBOA

Gaia: Hies-a
Tokia: S. Frantzisko iturria
Antolatzailea: Errotatxo

19,30 KONTZENTRAZIOA

Tokia: S. Frantzisko iturria
Antolatzailea: Errotatxo

ZINEA

"El ejercito de las tinieblas"

Erdi aroan girotutako pelikula hau, komedia, fantasia eta terrorearen jeneroen nahasketa da. Erdi aroan kokatuta, ezpata eta sorginkeria klasikoaren mundura garamatza pelikulak. Pelikularen lehen zatian, ideia bisual eta gag ugari azaltzen dira. Azken aldera, pelikulak erritmoa galtzen du.

ZINEA

Artegi LEHIAKETA

AZAROKO GALDERA: Elgoibarko Elkarte ezagun batek bere 50. urteurrena ospatzen du aurten. Ba al dakizu zein elkarteri buruz ari garen?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Azaroak 29an **SAMSUNG** Mikrouhin labe bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzuenon artean. (Anima zaitetzte eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

Etxebizitzak

Errosario kalean etxebizitza bat alokatzeko daukat.
Tel. 74 17 95

Etxe bat saltzen dut Urasandin. l. pisua. **Tel: 75 51 69**

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu. **Tel. 74 09 44**

Lana

Frantseseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantsesa naiz eta tituloa dut. Emakumeekin mintzamina lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - Setara bitartean. **74 04 59**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak egiteko prest nago. **Ainhua 74 16 89**

Marrazketa Teknikoan arazoak baldin badituzu klase partikularrik emateko prest nago. EFP eta BTiko ikasleei.
Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Haur bat zaintzeko prest nago. **Lorea 74 28 53**

Salerosketak

San Roke auzoan garaje bat alokatzeko daukat.
Tel.: 74 33 78

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da.
Tel.: 74 01 17

Brother trikotosa bat saltzen dut. bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
Tel: 74 18 51

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altilloa" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela. **Deitu: 74 36 34**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Ford fiesta XR 2 salgai. SS-5581-V. Oso ondo zainduta. **Deitu 74 13 46**

Karrerretarako bizikleta bat salgai. Berri-berria. "Mendiz" markakoa. **Tel. 74 10 93**

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, pletina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta. **Deitu 74 03 55 Iñigo**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari: 74 21 35 / 22 10**

Botadun patin pare bat saltzen dut. Paraleluak. 36 zenbakia. **Koldo: 74 12 85**

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km. **Tel. 74 28 32**

Sukaldeko altzariak salgai. XEY markakoak. Erabili gabeak. Prezio ezinhobeak. **Amaia Tel.:74 09 23**

San Antolin auzoan, taberna ondoan, lokala daukat alokatzeko. **Tel.:74 17 95**

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu. **74 39 89 Rufina**

kontaktuak

Betaurreko batzuk galdu nituen hilak 16an, asteartea, Batzokiko dorrea eta Lanbroa taberna bitartean. Marko metalikoa dute. Norbaitek aurkitu baditu deitu mesedez
Tel.: 74 14 73 Itziar.

Karitasek familia bati emateko butano txikidun estufa bat behar du. Inork emateko bezala balu, deitu.
74 15 09 / 74 12 57

Karitasek erropak gordetzeko armario bat hartuko luke familia bati emateko.
74 15 09 / 74 12 57

Untzon taberna istera doanez, bertan dagoen tresneria salgai jarriko dugu. Kamarak, Kafetera, Ontziak, kazuelak... Informazio gahiago nahi duenak dei dezala **74 00 35** Jesusa.


Datorren larunbatean hilak 27 Sebastian Etxaniz Alkorta presoaren urtebetetze eguna da. Zoriontzera anima zitezten hona hemen bere zuzenbidea: Centro penitenciario Madrid 3. Carretera Pinto Km. 5 28340 Baldemoro. Madrid.
Zorionak Sebastian!!

HERRI-GAIN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

BOUTIQUE DEL PAN
Enpanada Baserriko ogia
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

UDA BERRI
ELGOIBAR



SUBARU



BERTONE

NIPON AUTOAK

GIPUZKOARAKO ORDEZKARI OFIZIALA

634 ERREPIDE NAZIONALA, 52. KM

☎ 74 31 70 - 75 50 72

MENDARO



40 urtetik gorako esperientzia automobilaren zerbitzura